



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2013KO UZTAILAREN 12KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2013.07.12.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.
Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Eskolako obren esleipena.
- 3.-Mendiko lanak.
- 4.-Javier Larretxea jauna, Ana Lukanbio andrea eta Juan Angel Lukanbio jauna: katastroa aldatzeko eskaera.
- 5.-Udalkideen lansariak.
- 6.-2013ko bestak.
- 7.-Langileen funtzionarizazio prozesuari buruz.
- 8.- Udala eta partikularren arteko trukaketa.
- 9.-2012ko kontuak:behin betiko onespena.
- 10.-Nafarroako foru araubideari buruzko mozioa.
- 11.-Arantzako Arau Subsidiarioen informaziori buruz.
- 12.-Arantzako mendi itzulien seinalizazioa.
- 13.-Alkatearen ebazpenak.
- 14.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2013ko ekainaren 14an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ESKOLAKO OBREN ESLEIPENA.

Arantzako Udalak diru laguntza lortu du herriko eskolan gela bat gehiago egiteko dauden beharrak betezeko.

Horren arabera eta obrak esleitzeko gonbidapena bidali zen ondorengo enpresei:

- Tomas Tellechea Echeverria.
- Igantzi eraikuntzak S.L.
- Erlaitz eraikuntzak S.L.
- Felix Apezetxea eraikuntzak S.L.
- Iñaki Mikelarena Iraizoz.

Epean barne ondorengo enpresak aurkeztu du bere proposamena:

- Iñaki Mikelarena Iraizoz.

Ikusirik LUA Arkitektoak S.L.P. enpresak egindako proiektu teknikoa, Xabier Lopez de Uralde arkitektoak eta Mikel Aleman Astiz arkitekto teknikoak egina eta 2013ko uztailaren 4an bisatua.

Ikusirik espedienteko baldintza administratiboen plegua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Iñaki Mikelarena Iraizoz jaunari esleitzea Arantzako eskolako patioan gela bat egiteko lanak 41.897,00 eurotan, BEZ barne, LUA Arkitektoak egindako proiektua eta baldintza administratiboen pleguaren eta enpresa berak egindako proposamenaren arabera.

2) Iñaki Mikelarena Iraizoz jaunari jakinaraztea kontratua sinatzeko baldintza pleguaren 12. puntuan jarritakoa aurkeztu beharko duela eta lanak abuztuaren 31rako bukatuak izan.

3) Akordio hau Iñaki Mikelarena Iraizoz jaunari jakinaraztea.

3.-MENDIKO LANAK.

Mendiko batzordeak hainbat lan egitea beharrezkoa ikusten du, konkretuki, Beratsekun eta Abatzerdi alderdietan (azpiegiturak lanak eta Basartea enpresaren proiektua eta dokumentazio teknikoaren arabera).

Lanen aurrekontua 10.257,67 eurokoa da, BEZ barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako lanak egiteko gonbidapena ondorengo enpresei bidaltzea:Sasoi eraikuntzak S.L., Mikel Ubiria S.L., Pello Aginaga Macicior, Pako Altzuri S.L., Mikel Tellechea Juanena eta Patxiku Zelaieta Ariztegi.

2)Proposamenak aurkezteko epea: 2013ko uztailaren 26ko eguerdiko 2ak arte irekitzea.

4.-JAVIER LARRETXE JAUNA, ANA LUKANBIO ANDREA ETA JUAN ANGEL LUKANBIO JAUNA: KATASTROA ALDATZEKO ESKAERA.

Gai hau mahai gainean utzi da Batzordeak aztertzeko.

5.-UDALKIDEEN LANSARIAK.

Nafarroako Gobernuak 15.813,59 euroko diru laguntza eman dio Arantzako Udalari, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak edo bilkura-sariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema ezartzen duen legearen arabera.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Zinegotzi bakoitzari 20,00 euro ordaintzea bilkura bakoitzeko, eta kopuru hori Sortu talde politikoari ematea. Gaineko kopurua Alkateari ordaintzeko eta zinegotzien gastuetan gastatzea.

6.-2013KO BESTAK.

Ikusirik 2013ko bestetako egitaraua, 14tik 17ra, biak barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2013ko bestetako egitaraua onartzea.

7.-LANGILEEN FUNTZIONARIZAZIO PROZESUARI BURUZ.

Ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legeak, ekainaren 23ko 9/1992 Foru Legeak, abenduaren 30eko 15/1993 Foru Legeak, uztailaren 2ko 11/1996 Foru Legeak eta otsailaren 14ko 4/2003 Foru Legeak Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako toki entitateei ahalmena eman izan diete haien zerbitzuko langile-mota ezberdinek funtzionario-izaera eskuratzeko hauta-epeak abian jartzeko.

“Funtzionarizazio-prozesu” deituriko horien ondorioz, Nafarroako administrazio publikoentzat zerbitzuak ematen ari ziren ehunka pertsonak funtzionario-izaera eskuratu ahal izan dute; horrenbestez, urrats handiak egin dira sektore publikoko langile guztien errealitatea berdintasun handiagokoa izan dadin. Oraingoan, foru lege honen bitartez, asmoa da bidea irekitzea Nafarroako administrazio publikoetan diharduten lan-kontratudun finkoentzako funtzionarizazio-prozesu berri bati. Helburuak agerikoak dira, xedea baita administrazio publikoetan diharduten langile guztiek funtzionario-izaera bera izan dezaten eta, halatan, nahi izatekoa ez den kontratazio-ereduen bitasun honi amaiera jartzeko urratsak egin daitezten; izan ere, bitasun horretatik eratoritzen da, baiki, entitate publiko berari zerbitzu berdinak ematen dizkieten langileei ezberdintasunezko tratamendua ematea. Horrela, eta langile finkoen kontratazio berriak funtzionariotzaren esparruan egitearen ildotik, berdintasun-printzipioaren ikuspegitik egokiena denez gero, kontua da atzerabegirada bat botatzea jadanik finkaturik dauden lan-araubideko kontratazioei, aipaturiko izaera hori eskura dezaten.

Halaber, Nafarroako toki entitateek beste prozesu bati ekin ahalko diote, beren langileetatik lan-kontratudun finkoek funtzionario izaera eskura dezaten.

Legearen 2. artikulua araberako Nafarroako toki entitateek beste prozesu bati ekin ahalko diote, beren langileetatik lan-kontratudun finkoek funtzionario izaera eskura dezaten.

Aho batez, ERABAKI DU:

1) Arantzako Udaleko lan-kontratutako langile finkoak Administrazio Publikoen zerbitzuko langileriaren estatutuan sartzeko prozedura onartzea, aipaturiko foru legearen ezarritako baldintzei jarraituz.

2) Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3) Bi hilabeteko epea ezartzea, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, sartzeko eskabideak aurkezteko.

8.- UDALA ETA PARTIKULARREN ARTEKO TRUKAKETA.

2013ko maiatzaren 4an egindako bileran Arantzako Udalak erabaki zuen herri lur hauen desfektazioaren espedientea onestea:

-Francisco Javier Iparraguirre Almandoz jaunaren 4. poligonoko 10. eta 15. lur zatiak herriko 4. poligonoko 22. lur zatiarekin.

-M.Carmen Echeperre Iparraguirre andrearen 5. poligonoko 3. eta 5. lur zatiak herriko 6. poligonoko 308., 309. eta 310. lur zatiekin.

Baita ere, espedientea eta hartarako baldintzen agiria jendaurrean paratzea Herriko Etxeko iragarki oholean hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, hori guztia epe horren barrenean alegazio edo erreklamazioak aurkez daitezten. Bestetik ere, ohartarazten da horrelakorik jaso ezean erabakia behin betikoa bilakatuko dela.

Kontuan izanik jendaurrean egondako epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Herriko lurra den 6. poligonoko 22. lur zatia Francisco Javier Iparraguirre Almandoz jaunaren 4. poligonoko 10., 15. eta 17. lur zatiekin trukatzeko espedientea behin betikoz onartzea.

2) Herriko lurak diren 6. poligonoko 308., 309. eta 310. lur zatiak M.Carmen Echepare Iparraguirre andrearen 6. poligonoko 3. eta 5. lur zatiekin trukatzeko espedientea behin betikoz onartzea.

3) Espedienteak Nafarroako Gobernuko Herri Lur Zerbitzura bildatzea onartu dezan.

9.-2012KO KONTUAK:BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2012ko maiatzaren 3an egindako bileran, erabaki zuen 2012ko Kontu Orokorrei aldeko txostena ematea eta espedientea 15 egunez jendaurrean paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkezteko.

Ikusirik jendaurreko epean ez dela alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2012ko kontuen espedientea behin betikoz onartzea.

2) 2012ko kontuen espedientea Nafarroako Gobernura bidaltzea.

10.-NAFARROAKO FORU ARAUBIDEARI BURUZKO MOZIOA.

Ikusirik Bildu taldeak bidalitako mozioa, aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Arantzako Udalak Estatuko eta munduko herri guztien arteko elkartasunarekin duen konpromisoa adierazten du, egoera ahulenean dauden herriekin bereziki, erantzukizun eta konpromiso hori geure estrategia propioak zehazteko eskubidetik gauzatura.

2)Arantzako Udala kezkatuta dago, eta hala adierazten du, estatuko zenbait eragile Nafarroako herritarrek dituzten eskubide historikoak auzitan jartzen ari direlako etengabe, gaur egun ditugun bitarteko mugatu horiek ere zalantzan jartzera iritsiz, eta, halaber, adierazten du prest dagoela gaur egun gure erabakitzeko ahalmenean eta horri zor zaion errespetuan dauden hutsune larriak sakon berraztertzeke.

3)Arantzako Udalak Nafarroako Gobernuko Lehendakariari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakariari honakoa eskatzen die: elkarrekin eta koordinatuta lan egin dezatela Nafarroako hitzarmen ekonomikoaren eta EAEko kontzertu ekonomikoaren defentsan, bi bitarteko juridiko horiek eraso sistematikoa eta bateratua jasaten ari direlako. Gauzak horrela izaki, hitzarmenaren eta kontzertuaren defentsa bateratua da defentsa horren arrakasta berma dezakeena.

4) Arantzako Udalaren ustez Nafarroak duen arazorik larriena bere burujabetzaren ukazioak sortzen du. Burujabetzarik gabe ez daukagu herritarren beharrak eta eskaerak aseko dituzten politika sozialak eta ekonomikoak erabakitzeko ahalmenik. Gure ekonomiaren inguruko neurri funtsezkoenak Madrilen (Egonkortasun Legea, sistema finantzarioa arautzen



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

duten funtsezko legeak, lan-harremanen eta gizarte segurantzaren inguruko legeak...) eta Bruselan erabakitzen dira .

5) Hori guztia dela eta, Arantzako Udalak uste du beharrezkoa dela Estatuko nahiz munduko herri guztiek beren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea aitortzea, baita herrien borondatea baldintza berdinetan eta mugarik gabe garatu ahal izatea ere. Garaia da Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak, hitzarmenaren eta kontzertuaren defentsaren bitartez, burujabetza osoranzko urratsak eman ditzaten, herri gisa euskaldun herritarroki dagokigun eskubidea, erabakitzeko eskubidea, gauzatzuz.

11.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN INFORMAZIOARI BURUZ.

Bere garain banatu zen etxe guztietara Arantzako Arau Subsidiarioen gidaliburua, labor bilduz hirigintzako arauak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udaleko Arkitektoekin aztertu gidaliburua eta behar diren aldaketak egin ondoren etxeetara banatzea berriro.

12.-ARANTZAKO MENDI IBILBIDEEN SEINALIZAZIOA.

Arantzako mendi ibilbideen seinalizazioa egiten hasi zen Udalan joan den urtean baino ez dago bukatua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Falta den seinalizaio bukatzeko eskatzea Udaleko langileei.

13.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 44tik 46 arte).

14.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaituzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.



